

08/07 IRIZPENA

Konrado Mugertza jn.
Javier del Campo jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Iosu Gangoiti jn.
J. Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Raimundo Rubio jn.
Eva Blanco and.
Idazkari Teknikoa.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2008ko maiatzaren 22ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: EAEko Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako hainbat irakasle kidego sortzeko Lege proiektuari buruz.

I.- AURREKARIAK:

EAEko Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak araudi propio bat xedatu zuen, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasleen funtzio publikoa antolatu eta arautzen zuena. Eta oinarritzat hartzen zituen irakasle kidego propioak sortzeko oinarritzko legeriak irakasle kidegoak arautzeko ezartzen zituen xedapenak

Lege horrek ebazten zuen katedradun izatea meritu pertsonala zela Bigarren Hezkuntzako Irakasleentzat, Arte Plastiko eta Diseinuko Irakasleentzat eta Hizkuntza Eskoletako Irakasleentzat. Hori dela eta, katedradun izatea lortzen zutenek beren kidegoan jarraitzen zuten LOGSEk eta abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak (Funtzio Publikoa aldatzeko neurriei buruzkoa) ezarritako sistemari jarraiki.

Bestetik, sistema horrek Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko funtzionarioei zegozkien funtzioak ezartzen zizkien titulazio eta esperientzia profesional jakin bat zuten irakasleei. Horrela, eta nahiz eta ikuskaritza lanak egin, irakasle horiek jatorrizko kidegoetan geratzen ziren.

Ondoren, ikastetxeen partaidetza, ebaluazioa eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoa sortu zuen. Beste alde batetik, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak gainontzeko hiru kidegoak sortu zituen. Horiek guztiak, gaur egun, Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak irakasle publikoentzako ezartzen duen estatutuen erregimenaren oinarrien definizioaren barruan daude.

II.- EDUKIA

Lege proiektu honek 5 artikulua, 4 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu. Era berean, Pertsonalaren Kudeaketaren zuzendariaren justifikazioko memoria eransten da.

1. artikulua Legearen xedea ezartzen du, hots, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako lau kidego sortu: Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoa; Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradunen Kidegoa; Hizkuntza Eskoletako Katedradunen Kidegoa eta Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoa.

2. artikulua aipatutako langileen jarduera-eremua zehazten du eta bakoitzari dagokion araudira igortzen gaitu.

3. artikulua Katedradunen Kidegoetan (Bigarren Hezkuntzakoak/Arte Plastiko eta Diseinukoak/Hizkuntza Eskoletakoak) sartzeko baldintzak ezartzen ditu: jatorrizko kidegoa, antzintasuna, titulazioa. Era berean, ezartzen du hizkuntza eskakizunak Irakasleen Kidegoei buruzko Legeak ezartzen dituen printzipio orokorreari jarraiki egiaztatu behar direla. Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposizio bat egin behar da, praktikaldia barne. Azkenik, deialdiak arautzeko irizpideak xedatzen dira.

5. artikulua horrelako lanpostuak betetzeko lehiaketetan parte hartzeko irizpideak zehazten ditu kidego horietako langileentzat.

Lehen xedapen gehigarriak ezartzen du araudi honen artikulua (irakasle funtzionarioen estatutuen erregimenaren oinarriak arautzen dituztenak) aldatutzat joko direla oinarriko arautegia berrikusten den unean. Bigarrenak ezartzen du EAEko kidegoetako funtzionarioak Legeak sortzen dituen kidegoetan sartuko direla. Hirugarrenak xedatzen du EAEko gainontzeko Irakasleen Kidegoak izen maskulino eta femeninoen formak erabiliz izendatu behar direla. Laugarrena lege honen ordezkotza aplikazioari buruzkoa da.

Xedapen indargabetzaileak zehazten du zeintzuk diren indarririk gabe geratzen diren Irakasleen Kidegoei buruzko 2/1993 Legearen artikulua eta erreferentziak.

Azken xedapenek dekretuaren legezko garapen zehatza baimendu eta dekretua indarrean sartzeko eguna zehazten dute.

III.- BALORAZIOAK

Proposamena aztertu ondoren, Batzorde Iraunkorrek uste du EAeko Irakasleen Kidego propioen konfigurazioa oinarrizko araudira egokitu behar dela. Bestetik, Kontseiluak uste du proposamenak segurtasun juridiko handiagoa eskainiko duela eta, hortaz, ikus-onetsia ematen dio aurkeztutako proiektuari.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo 2008ko maiatzaren 23a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia:

PRESIDENTEA

Sinaturik: Konrado Mugertza jn.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAIL-
BURUA.